

## **Iñaki Perurenak herri-kirolari buruzko hitzaldia eta erakustaldia eskaini zituen MONDRAGON UNIBERTSITATEaren Bidasoako campusean, Euskararen Eguna dela eta.**

2016/12/05

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultatearen Bidasoako campusak hainbat ekitaldi antolatu zituen astean zehar, Euskararen Eguna dela eta, abenduaren 3an ospatzen baita urtero. Ekitaldi horien artean, azpimarratzekoa da Iñaki Perurena harri-jasotzaileak bere esperientziari buruz euskaraz eskaini zuen hitzaldia eta ondoren egin zuen erakustaldia.

Abenduaren 2an, ostiralean, izan zen. Gainera, astean zehar, jendea euskaraz hitz egitera bultzatzeko eta euskara ikasi nahi zutenei irakasteko pertsonak egon ziren unibertsitatean. Euskara sustatzea izan da erronka, bai Irungo herrian, bai Enpresagintzako ikasle eta irakasleen artean, baita Fakultateko Erasmuseko ikasleen artean ere, haiei euskal kultura, herri-kirola eta euskara ezagutaraziz.

Horrez gain, Bidasoako campuseko Mugi Handi ikasle-elkarteak aste osorako egitaratua prestatu zuen euskara bultzatzeko. Antolatutako ekitaldien artean, euskara eta kirolari buruzko argazki-lehiaketa eta euskarazko piropo-lehiaketa aipa daitezke.

### **Iñaki Perurena**

Fakultateak ostiralean, abenduak 2, ospatu zituen Euskararen Eguneko ekitaldi gehienak (Euskararen Eguna, abenduaren 3a, larunbata zelako), euskara eta kirola protagonista izan ziren egitarau batekin. Egitarauari hasiera emateko, Iñaki Perurena harri-jasotzailearen hitzaldia eta erakustaldia izan ziren (11:00etatik 12:00etara). Ondoren, ikasle eta irakasleek herri-kiroletako probak ikusi eta horietan parte hartzeko aukera izan zuten (12:00etatik 12:30era).

Jardunaldia bukatzeko, pintxo-lehiaketa egin zen (13:30etik 13:45era); eta, ondoren, lehiaketa horren, piropo-lehiaketaren eta argazki-lehiaketaren sari-banaketa izan zen.

